DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA

- Laguntza genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat 2
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzat laguntza 4
- 2021-2027 aldirako EGF+k kofinantzatutako oinarrizko laguntza materiala 6
- Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak 2025 8
- Adinekoentzako Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria 2025. urterako 10
- Laguntzak enpresentzat, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzearen esparruan egoera-diagnostikoak eta ekintza-planak egiteko 11
- Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak 13
- 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak 16
- Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak (27/2023 Dekretua) 18
- Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak (30/2015 Dekretua) 20
- Gazteriaren arloan programak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak 22
- Gazteen mugikortasunerako edo elkartrukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak 24
- Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetza-proiektuak garatzeko dirulaguntza 26
- Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako dirulaguntzak 28
- Gazteen emantzipaziorako Emantzipa programa 30
- Dirulaguntzak toki-entitateei immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren jarraipenerako (TEC lerroa). Dirulaguntzak toki-entitateei immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko (LOC lerroa) 31

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laguntza genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat

2.- Araua

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa.

1452/20005 ERREGE DEKRETUA, abenduaren 2koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. Artikuluan ezarritako dirulaguntza arautzen duena.

AGINDUA, 2014ko urriaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena ─1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa.

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 12koa, Bizitza Beterako Laguntzen zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Aginduan aurreikusitako dirulaguntzetarako zuzkidura. Urriaren 29ko agindu horren bitartez, prozedura hau ezarri zen: Genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura.

EBAZPENA, 2025eko abenduaren 3koa, Bizitza Beterako Laguntzen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Aginduan aurreikusitako laguntzetarako 2025erako kreditua handitzen dela. Agindu horren bitartez, honako prozedura hau ezarri zen: Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (2004ko abenduaren 29ko BOE, 313. zk.)
https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con

1452/20005 ERREGE DEKRETUA, abenduaren 2koa A41341-41344 (boe.es)

AGINDUA, 2014ko urriaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena ─1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa─ (2014ko azaroaren 19ko EHAA, 221. zk.)
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/11/1404962e.pdf

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 12koa, Bizitza Beterako Laguntzen zuzendariarena, 2025ko ekitaldirako dirulaguntzetarako, 1.600.000 euroko zuzkidura argitaratzen duena.

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/02/2500775e.pdf
EBAZPENA, 2025eko abenduaren 3ko, Bizitza Beterako Laguntzen zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 681.680 euroko kreditua handitu dela 2025ko ekitaldirako, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014kourriaren 29ko Aginduan aurreikusitako laguntzetarako.
https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/12/2505343e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aipatutako dirulaguntza programaren hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak dira, baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenak eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztenak, eta eskubide ekonomikoak bermatzen zaizkie gizarteratzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

660 laguntza-eskabide izan dira 2025ean: 2025an 583 jasotakoak, gehi konpondu gabe geratutako iazko 77.
660 eskabide horietatik 530 ebatzi dira (299 onartu, 178 baztertu eta 53 bertan behera utzi), eta 130 geratu dira 2026ean ebazteko.
Genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako dirulaguntzaren aurrekontua de 2.281.680 eurokoa izan da 2025ean. Ia dena gastatu da, hain zuzen ere 2.208.870 euro (%96,81).
Dirulaguntzen programa honen gizarte-eragina ukaezina da, Estatuko araudian aurreikusitako agindua betetzen baitu, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubide ekonomikoak legez ezarritako baldintzetan bermatuz. 2025an 299 emakumeari lagundu die, eta horietatik 223k (%74,58) adingabeak edo senideak zituzten ardurapean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Dirulaguntza-eskaeren kopurua	700	660
Emandako dirulaguntzaren kopurua	400	299

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzat laguntza

2.- Araua

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa.
- •1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- 48/2024 DEKRETUA, apirilaren 16koa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa arautzen duena.
- AGINDUA, 2025eko maiatzaren 14koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, apirilaren 16ko 48/2024 Dekretuak, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duenak, aurreikusitako laguntzarako esleitutako zuzkidura argitara ematen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

• 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa:
https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con
• 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena:
https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/03/2301471e.pdf
• 48/2024 DEKRETUA, apirilaren 16koa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/05/2402413e.pdf
• AGINDUA, 2025eko maiatzaren 14koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, apirilaren 16ko 48/2024 Dekretuak, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duenak, aurreikusitako laguntzarako esleitutako zuzkidura argitara ematen duena.
https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/05/2502321e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza ekonomikoaren helburua da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzen bizitza garatzeko laguntza ematea eta, ahal den neurrian, haien amen heriotzak eragindako kaltea konpontzen laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025an 8 laguntza-eskaera izan dira (3 ezohiko eta 8 ohiko) 8 eskaera horietatik 7 (2 apartekoak eta 7 arruntak) onartu dira eta 1 (1 apartekoa eta 1 arrunta) geratu da 2026ean ebazteko. 2025ko ekitaldian emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa 421.200 eurokoa izan da. Zehazki, 66.080 euro gastatu dira (% 15,69). Dirulaguntzen programa horrek gizartean duen eragina ukaezina da; izan ere, Estatuko araudian aurreikusitako agindua betetzen du, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako seme-alaba umezurtzen eskubide ekonomikoak bermatuz, legez ezarritako baldintzetan, eta 2025an emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako 8 seme-alaba umezurtz lagundu ditu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Dirulaguntza-eskaeren kopurua	33 apartekoak eta 40 arruntak	3 apartekoak eta 8 arruntak
Emandako dirulaguntzaren kopurua	33 apartekoak eta 40 arruntak	2 apartekoak eta 7 arruntak

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2021-2027 aldirako EGF+k kofinantzatutako oinarrizko laguntza materiala

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 23koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2021-2027 aldirako Europako Plus Gizarte Funtsak (EGIF+) kofinantzatutako oinarrizko laguntza materiala emateko prozedurarako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

EHAA, 129. zk., 2025/07/09
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/07/2503064e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Pobrezia-tasa eta gabezia materiala murriztea eta adingabeak beren kargura dituzten familia behartsuenen gizarteratzea sustatzea, oinarrizko laguntza materiala deiturikoan bildutako elikadura- eta higiene-produktuekin truka daitezkeen txartel edo baleen bidez egituratutako baliabide ekonomikoak emanez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Lortutako emaitzak:
  EMCR19: Txartel edo txartelen onuradun izan diren azken hartzaileen kopurua: 12.775
  EMCR20:18 urtetik beherako haur onuradunen kopurua: 6.310
  EMCR21:18 eta 29 urte bitarteko gazteen kopurua: 1.867
  EMCR22:65 urte edo gehiagoko azken hartzaileen kopurua: 58
  EMCR23: Emakume kopurua: 7.461
  EMCR24: Desgaitasuna duten azken hartzaileen kopurua:
  EMCR25: Hirugarren herrialdeetako nazionalen kopurua: 487
  EMCR26: Atzerriko edo gutxiengoetako azken hartzaileen kopurua: 10.896
- Aurrekontua gauzatzea:
  Txartelak kargatzea 2025: 753.777,96
  2025eko laguntza-neurriak (% 6,2305): 46.964,14
  2025eko laguntza teknikoa (% 4,7619): 35.894,16

GUZTIRA: 836.636.26

- Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina. Programaren beraren funtsak agerian uzten du gizartean duen eragina, eta pobrezia- eta babesgabetasun-egoerak saihesteko balio du, erabiltzaileen estigmatizazioa saihestuz. Programa Europako Plus Gizarte Funtsean (EGF+) sartzen da. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1057 (EB) Erregelamenduak arautzen du, Europako Plus Gizarte Funtsa (EGF+) ezartzen duenak eta 1296/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duenak. EGIF+en helburua honako hauek bermatzea da: aukera-berdintasuna, lan-merkatuan sartzeko berdintasuna, lan-baldintza bidezkoak eta kalitatezkoak, gizarte-babesa eta -inklusioa, arreta berezia jarrita hezkuntza eta prestakuntza inklusibo eta kalitatezkoan, etengabeko ikaskuntzan, adingabe eta gazteen inbertsioan eta oinarrizko zerbitzuetarako sarbidean, eta Laguntza Programa erregelamendu horien aurreikuspenetara egokitzen da, eta eragin soziala erregelamendu-konfiguraziotik bertatik ondorioztatzen da.
- Berdintasuna sustatzeko neurriak. Ez da halakorik aurreikusi. Laguntza-programak bereziki eragiten du adingabeak ardurapean dituzten emakumeen kolektiboan, eta pobrezia- eta babesgabetasun-egoerak saihesten laguntzen du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
(*)	--	--

(*) Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ez da zehaztu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1057 (EB) Erregelamenduan definitutako adierazleetako bat bera ere. Erregelamendu horrek Europako Plus Gizarte Funtsa (EGEF +) ezartzen du, eta 1296/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen.

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak 2025

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko otsailaren 10ekoa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko 2025eko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

2025-02-17ko EHAA, 32. zk.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/02/2500749e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gizarte-ekimeneko erakundeek esku-hartze sozialeko jarduerak egiteko dirulaguntzak.
1. lerroa. Esku-hartze soziala pertsona, familia, talde eta komunitateekin.
2. lerroa. Esku-hartze sozialaren eremuan ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzea.
3. lerroa. Gizartean esku hartzeko ezagutza kudeatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Lortutako emaitzak: lortutako emaitzak lortu direla uste da; izan ere, erakunde eskatzaileen parametroak aurreikuspena lortzen ez badu ere, finantzatutako proiektuen kopuruak aurreikuspen hori nabarmen gainditzen du. Erakunde onuradun bakoitzak dirulaguntza hainbat proiektutan lortzeak irakurketa bikoitza du. Alde batetik, onuradunen dibertsifikazio mugatua; bestetik, positiboagoa, EAEn finkatuta dauden hirugarren sektoreko erakundeek aurkeztutako proiektuen heldutasuna eta sendotasuna, eta hori aurrerapausoa da beren proiektuen profesionaltasunean eta eraginkortasunean.
- Aurrekontuaren betearazpena: % 100 hiru lerroetan.
  1. lerroa: 3.743.480 euro; horietatik, 2.620.436 euro 2025erako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.123.044 euro 2026rako konpromiso-kredituari.
  2. lerroa: 599.000 euro; horietatik, 419.300 euro 2025erako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 179.700 euro, 2026rako konpromiso-kredituari.
  3. lerroa: 450.000 euro; horietatik, 315.000 euro 2025erako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 135.000 euro, 2026rako konpromiso-kredituari.

- Baliagarritasun eta eragin soziala: Eragin soziala agerikoa da, finantzatutako proiektu guztiak gizarte-ekimeneko erakundeek egindako esku-hartze sozialeko jardueren garapenean sartzen baitira. Beraz, ezin da zalantzan jarri erabilgarria dela, Euskadiko gizarte-ekimeneko erakundeak finkatzen dituztelako, deialdiak eskatzen dituen gizarte-ekimeneko proiektuak garatuz.
- Desberdintasunak sustatzeko neurriak: laguntzak banatzeko irizpideek aurreikusten dute proiektuetan ikuspegi intersekzionala txertatzeko neurriak aintzat hartzea hiru lerroetarako, aldeko balorazio-elementu gisa (26., 29. eta 32. oinarriak)

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Entitate kopurua (diruz lagundutako jarduerak)	290	209 (447)
1. lerroa. Esku-hartze soziala pertsona, familia, talde eta komunitateekin.		176 (285)
2. lerroa. Esku-hartze sozialaren eremuan ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzea.		77 (77)
3. lerroa. Esku-hartze sozialerako ezagutzaren kudeaketa		69 (85)

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Adinekoentzako Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria 2025. urterako

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 5ekoa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita «Adinekoentzako Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Sariaren» 2025eko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

2025/06/12ko EHAA, 110. zk.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502629e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Publikoki aitortzea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan lagunkoitasunagatik eta lagunkoitasunagatik adinekoentzako ingurune erraztatzaileak sortzeagatik nabarmentzen diren praktikak egiten dituzten entitate publiko eta pribatuak (Saria arautzen duen urriaren 3ko 145/2023 Dekretuaren arabera).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Lortutako emaitzak: % 100. Emandako sari 1
- Aurrekontuaren betearazpena: % 100. 3.000 euro
- Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina: Saria emateak eta saritutako proiektua zabaltzeak agerian uzten dute gizartean adinekoei laguntzeko ekimenak daudela edizio honetan, etxebizitzaren eta belaunaldien arteko bizikidetzaren eremuan, bizitzaren fase honetan zaharrenen bizi-baldintzak hobetzeko bide gisa.
- - Berdintasuna sustatzeko neurriak: Saria arautzen duen 145/2003 Dekretuak proiektuak baloratzeko ezartzen dituen irizpideen artean, honako irizpide hau aurreikusten da: "Proiektuaren plangintzan, garapenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzea (emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartzea)".

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Deialdira aurkeztutako erakundeen kopurua	4	4

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laguntzak enpresentzat, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzearen esparruan egoera-diagnostikoak eta ekintza-planak egiteko

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 11koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoan establezimenduren bat duten entitate edo pertsona autonomoei bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lanaren kontziliazioaren arloko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko laguntza ekonomikoak emateko oinarriak, eta 2025erako deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/07/2503032e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honek EAEko establezimenduak dituzten entitateei eta pertsona autonomoei laguntzak ematen dizkie euren lehenbiziko kontziliazio-diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko.
Helburua kontziliazio pertsonal, familiar eta laborala sustatzea da, aholkularitza espezializatuaren bidez.
Laguntzak kostuaren %70 finantzatzen du eta gehienez 10.500 euro arte, plantillaren tamainaren arabera.
Laguntzak soilik lehen kontziliazio-plana diruz laguntzen du, ez berrikuspenak edo ezarpen-neurriak.
Onuradunek hainbat baldintza bete behar dituzte, hala nola aurretik planik ez izatea, betebehar fiskalak egunean izatea eta zigortuta ez egotea.
Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2025/01/01 eta 2026/05/31 bitartean egin beharko dira.
Laguntzak lehiaketa bidez emango dira, balorazio-irizpide zehatzekin.
Guztira 420.000 euroko aurrekontua dago.
Izapidetzea %100 telematikoa da, eta eskabideak aurkezteko epea 2025eko irailaren 30ean amaitzen da.
Ordainketa bi zatitan egiten da (50% + 50%), eta horretarako diagnosia, plana eta justifikazio-dokumentuak aurkeztu behar dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

18 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 16 proiektuk gainditu zuten ezarritako gutxieneko puntuazioa; beraz, 16 erakunde izan ziren onuradun.
2025eko deialdiko gastu totala 84.772,94 € izan da, 42.386,48 € 2025eko aurrekontuaren kontura, eta 42.386,46 € 2026rako konpromiso-kredituaren kontura.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Laguntza eskatzen duten enpresen kopurua (orokorra eta lurralde historikoki)	Guztira: 60 Bizkaia: 25 Araba: 15 Gipuzkoa: 20	Guztira: 18 Bizkaia: 13 Araba: 1 Gipuzkoa: 4
Dirulaguntzarekin egindako uztartze-planetan sartutako neurrien zuzeneko onuradun izan daitezkeen langileen kopurua.	Guztira: 2.500 Emakumeak: 1.500 Gizonak: 1.000	Guztira: 2.830 Emakumeak: 965 Gizonak: 1.865

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak

2.- Araua

164/2019 dekretua, urriak 22koa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/textosconsolidados/201905022_vigentee.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kapitulu honen barruan, hiru laguntza-lerro bereizten dira:

- **Adingabeak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak**
- **Senideak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak:**
  - Mendekotasuna duten senitartekoak zaintzea
  - Osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzea
- **Eszedentzia egoeran dauden guraso bakarreko familientzako laguntzak, jaiotzagatik eta urtebetetik beherako haurra zaintzeagatik guraso biko familietako gurasoek baliatzen dituzten kotizaziopeko prestazioen aldiak parekatzeko.**

  Laguntza-lerro horren hasierako helburua zen gurasoek urtebetetik beherako haurra jaiotzeagatik eta zaintzeagatik jasotzen zituzten kotizaziopeko prestazioen aldiak parekatzea. Horregatik, dekretu honetan enuntziatu horrekin definitzen da. Hala ere, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, Langileen Estatutuaren Legearen hamahirugarren xedapen iragankorra aplikatzearen ondorioz, ama biologikoari eta beste gurasoari aitortutako baimena parekatu egin da, eta biek 16 asteko baimena izateko eskubidea dute. Horregatik, laguntza-lerro hori guraso bakarreko familiei soilik aplikatuko zaie.

Gainera, dekretu horretan 0 eta 3 urte bitarteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntza-lerroa jasotzen da, eta irailaren 7ko 102/2022 Dekretua indarrean sartzean indargabetu egin zen. Hala ere, 164/2019 Dekretu honek arautzen jarraitu zuen dekretu hori indarrean jarri aurretik diruz lagundu zitezkeen egoerak.

Laguntza-lerro horien bidez, familia-eredu bat sendotu nahi da, zeinean ezin baitzaie uko egin kide guztien arteko autonomiari eta errespetuari, bai eta bikoteko bi kideen berdintasunari ere. Laguntza-lerro hauen bidez, erantzukizun pertsonalak, familiakoak eta lanekoak uztartzea erraztu nahi da, emakumea lan-merkatuan sartzea eta bere karrera profesionala garatzea sustatu nahi da, eta emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna familia-eremuan finkatzen lagundu nahi da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Adingabeak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak:

- Onuradunen kopurua guztira: 11.851 (9.904 emakumezkoak eta 1.947 gizonezkoak)
- Aurrekontu gauzatzea: 18.980.482,24 € (% 80,8)

  Laguntza-lerro honek urrats garrantzitsua izan nahi du kolektibo kalteberentzat; bai onuradunak bai 2025ean ordaindutako espedienteak ia % 15 izan dira.

Senideak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak:

- Onuradunen kopurua guztira: 522 (420 emakumezkoak eta 102 gizonezkoak)
- Aurrekontu gauzatzea: 997.292,35 € (% 83,1)

Eszedentzia egoeran dauden guraso bakarreko familientzako laguntzak, jaiotzagatik eta urtebetetik beherako haurra zaintzeagatik guraso biko familietako gurasoek baliatzen dituzten kotizaziopeko prestazioen aldiak parekatzeko.

- Onuradunen kopurua guztira: 21 (20 emakumezkoak eta 1 gizonezkoak)
- Aurrekontu gauzatzea: 118.593,36 € (% 30,4)

<u>Bi lerroen baliagarritasuna eta gizarte-eragina:</u>

Dekretu honetan, honako kolektibo zaurgarri hauek kontuan hartzen dituzten zenbait neurri ezartzen dira: familia ugariak, guraso bakarreko familiak, mendekotasun larria duen pertsonaren bat edo mendekotasun handia edo % 50etik gorako desgaitasuna duen pertsonaren bat duten familia-unitateak, eta genero-indarkeriaren biktimaren bat duten familia-unitateak.

Kasu horietan, laguntzaren zenbatekoa % 30 handitzen da dauden egoera bakoitzeko. Gainera, horietako batzuetan, laguntza-egunen gehieneko kopurua handitzen da, ulertzen baita, beren errealitatean eta egunerokoan, premiak beste familia batzuenak ez bezalakoak direla.

Parekatzeko laguntza-ildoarekin modu berezian babesten dira guraso bakarreko familiak. Genero-ikuspegia kontuan hartu da dekretu hau sortzeko eta garatzeko orduan, familia eta lana bateragarri egiteko; izan ere, ekintza guztiak berdintasuna sustatzeko eta gizarte-eredu erantzunkide berri bat lortzeko ikuspegitik erabaki eta baloratu dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako printzipioak eta betebeharrak aplikatuz.

Izan ere, seme-alaben zaintzan gizonak duen presentzia areagotzeko, neurri bat ezarri zen, gizonezko gurasoari laguntza-egun gehiago ematea. Horrela, gizona bada lan-bizitzaren zati bat sakrifikatzen duena familia-bizitzan presentzia aktiboagoa izateko, familia-onura handiagoa da (denbora gehiagoz eskuratzen ditu laguntzak). Gizonek familiako bizitzan zeregin aktiboagoa izatea lortu nahi da, erantzukizunak banatuz eta, aldi berean, emakumea lan-munduan sartzen lagunduz.

Horregatik, garrantzitsua da onuradunen kopurua kuantifikatzea, generoaren arabera. Ikusten da seme-alabak zaintzeagatik familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak lortu dituzten gizonen proportzioak gora egiten jarraitzen duela, kasu honetan ehuneko 0,86 puntu aurreko urtearen aldean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzen onuradunak.	14.200	11.851
Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzen onuradunak.	600	522
Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen onuradunak	10	0
Eszedentzia egoeran dauden guraso bakarreko familientzako laguntzak, jaiotzagatik eta urtebetetik beherako haurra zaintzeagatik guraso biko familietako gurasoek baliatzen dituzten kotizaziopeko prestazioen aldiak parekatzeko. (Amatasun-lizentziarik izan ez duen gurasoari zuzendutako eszedentziagatiko laguntzen onuradunak).	60	21

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak

2.- Araua

102/2022 dekretua, irailak 7koa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/09/2204041e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen bidez, Gizarte Segurantzan alta emanda dauden hamalau urtetik beherako seme-alabak zaintzeko pertsonak kontratatzeko dirulaguntzak ematen dira. Zehazki, Gizarte Segurantzan ordaindutako kuotak finantzatzen dira, eta zenbatekoa familia-errenta estandarizatuaren arabera zehazten da.

Helburua da guraso biek lan egiten duten familiei eta seme-alabak lanaldian zehar zainduta egon daitezen etxean zaintzaileak kontratatzera jo behar izan dutenei, lana eta familia bateragarri egiten laguntzea (lanaldiaren % 100ean).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak:

- Onuradunen kopurua guztira: 810 (535 emakumezkoak eta 275 gizonezkoak)
- Aurrekontu gauzatzea: 890.049,31 € (% 59,3)

Baliagarritasuna eta gizarte-eragina:

Laguntzen ildo honetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen da; izan ere, laguntza horiek eskuratu ahal izateko, beharrezkoa da bi gurasoek lanaldi osoan lan egitea, rolak banatzea, erantzunkidetasuna eta emakumeak lan-munduan duen zeregina bultzatuz, gizonenarekin parekatuz.

Gainera, honako kolektibo zaurgarri hauek hartzen dira kontuan: familia ugariak, guraso bakarreko familiak, mendetasun larriko, mendetasun handiko edo % 50etik gorako desgaitasuneko egoeran dagoen pertsonaren bat duten familia-unitateak eta genero-indarkeriaren biktima den pertsonaren bat duten familia-unitateak. Kasu horietan, baimena ematen zaie gurasoei % 50erainoko lanaldi-murrizketan edo % 50eko edo gehiagoko kontratu partzial batean egoteko. Neurri hori oso lagungarria da egoera horietakoren batean dauden familientzat; izan ere, baldintzak malgutzen ditu ordutegiak beren beharretara egokitu ahal izateko. Izan ere, 2025ean, onuradunen % 47,16 kolektibo horiei dagokie

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntza ekonomikoen onuradunak	1.100	810

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak (27/2023 Dekretua)

2.- Araua

27/2023 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, seme-alabaren bat duten familientzako laguntzena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

27/2023 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, seme-alabaren bat duten familientzako laguntzena.
www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/02/2301073e.pdf
AGINDUA, 2025eko martxoaren 12koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuan eta otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuan aurreikusitako seme alabak dituzten familientzako dirulaguntzen aurrekontu-zuzkidura jakinarazten duena.
www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/03/2501297e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, dirulaguntzak ematen zaizkie seme-alabak dituzten familiei. Hilean 200 euroko laguntzak dira, 0 urtetik 3 urte bete arte, eta hilean 100 euroko laguntzak, 3 urtetik 7 urte bete arte hirugarren seme-alaba edo gehiago dituzten familientzat. Gainera, ordainketa bakarreko aparteko laguntzak ematen dira erditze anizkoitzagatik, adopzio nazional anizkoitzagatik eta nazioarteko adopzioagatik. Semeak edo alabak desgaitasunen bat badu edo haren mende badago, emandako zenbatekoak bikoiztu egiten dira. Programaren helburua familiei laguntzea, seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabideak bermatzea eta haurren pobrezia prebenitzea da. Programak Euskal Autonomia Erkidegoko familien, haurren eta nerabeen ongizatea indartu nahi du.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Ekitaldi bakoitzean aurrekontuan jasotako eta gauzatutako zenbatekoetan jartzen dugu arreta, aurrekoen ohiko exekuzioarekin jarraitzen duten emakidak zenbatu gabe, zuzenbidearen arabera iraungi direnak izan ezik.

2025/000751	**2025**	**2026**	**2027**	**2028**	**2029**	**2030**	**GUZTIRA**
Aurrekontua	36.851.160	48.000.000	44.000.000	18.000.000	1.000.000	1.000.000	**148.851.160**
Baimenak	31.284.700	35.202.600	33.065.400	11.903.700	706.500	-	**112.162.900**
Xedapenak *	29.526.500	35.442.200	32.302.600	10.330.300	403.300	-	**108.004.900**
D/P	80,12%	73,84%	73,42%	57,39%	40,33%	-	**72,56%**
D/A	94,38%	100,68%	97,69%	86,78%	57,08%	-	**96,29%**

* 2025. urteko xedapenak. Ez dira xedapen negatiboak jasotzen, ezta ADOak ere.

Programa aurreikusitakoaren arabera garatu da, baimendutako baliabideetan islatzen denari erreparatuta. 148,9 milioi euroko aurrekontu-kreditua eta 112,2 milioi euroko baimendutako zenbatekoa alderatuta, murrizketa nabarmena antzeman daiteke. Hala ere, alde hori aurrekontuak laguntzaren igoera bat aurreikusten zuelako da; azkenik, ordea, aldaketa hori ez zen indarrean sartu. Horren ondorioz, aurrekontuan jasotakoaren aldean, baimendutako zenbatekoa nabarmen txikiagoa da, eta, gainera, 2030eko ekitaldirako aurreikusitako zenbatekoak ere ezabatu egin dira.

Gauzak horrela, xedapenek doikuntza-maila handia erakusten dute baimendutako zenbatekoekiko (%96,29 aldi osoan), eta, oro har, urte guztietan antzeko mailari eusten diote.

Hala ere, adierazle honen interpretazio egokia egiteko, kontuan hartu behar da xedapenen zenbatekoak ez dituela barne hartzen ADOak: onartuta egonda ere, hainbat gorabeherarengatik (hala nola, banku-kontuetan izandako arazoak edo iraungitze-fasean ebatzi gabeko kautelazko etendurak), aurrekontu-itxiera baino lehen, eman ezin izan ziren ordainketek eragindakoak (2025eko zenbatekoei eragiten diote); Halaber, xedapen negatiboak ere ez dira barne hartzen: ekitaldi berean laguntzarako eskubidearen galereri dagozkienak (kontabilitatean, dagozkion urteetako Baimendutako kreditura itzultzen dira). Azken honek azaltzen du 2026an D/A ratioak % 100 gainditzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
2023an eta 2024an emandako eta 2025ean ordainketak dituzten 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrengatiko dirulaguntzak	34.436	33.576
2023an eta 2024an emandako eta 2025ean ordainketak dituzten 3 urtetik 7 urtera bitarteko haurrengatiko dirulaguntzak	5.617	5.423
2023an eta 2024an emandako eta 2025ean ordainketak dituzten % 33ko edo gehiagoko desgaitasunengatiko edo mendekotasunengatiko laguntzen bikoizketa	169	168
2025ean emango diren 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrengatiko dirulaguntzak	14.461	14.321
2025ean emango diren 3 urtetik 7 urtera bitarteko haurrengatiko dirulaguntzak	2.176	1.800
2025ean emango diren erditze anitz, adopzio nazional anitz, adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetza anitz, tutoretza anitz eta nazioarteko adopzio bakun nahiz anitzengatiko laguntzak	237	231
2025ean emango diren % 33ko edo gehiagoko desgaitasunengatiko edo mendekotasunengatiko laguntzen bikoizketa	602	513

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak (30/2015 Dekretua)

2.- Araua

30/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arau tzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

30/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arau tzen dituena.
www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501448e.pdf
AGINDUA, 2025eko martxoaren 12koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuan eta otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuan aurreikusitako seme alabak dituzten familientzako dirulaguntzen aurrekontu-zuzkidura jakinarazten duena
www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/03/2501297e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Eskaera-epea itxita dago (indargabetua). Hala ere, oraindik ebatzi gabe dauden espedienteei dagozkien datuak aurkezten dira, besteak beste, gora jotzeko errekurtsoen aldeko ebazpenak eta desgaitasunagatik edo mendekotasunagatik emandako laguntzen bikoizketak. Programa honen bidez, dirulaguntzak ematen zaizkie seme-alabak dituzten familiei. Laguntzak urteko 400, 500 edo 900 eurokoak dira, familia-errenta estandarizatuaren arabera, eta zenbatekoa aldatu egiten da seme-alabaren ordenaren arabera (lehenengoa, bigarrena, hirugarrena edo ondorengoak). Gainera, ordainketa bakarreko aparteko laguntzak eskaintzen dira honako kasu hauetan: erditze anizkoitza, adopzio nazional anizkoitza eta nazioarteko adopzioa. Semea edo alabak desgaitasunen bat badu edo mendekotasun-egoeran badago, emandako zenbatekoak bikoiztu egiten dira. Programaren helburua da familiei laguntzea, seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabideak bermatzea eta haurren pobrezia prebenitzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontua: 474.200 euro
Exekuzioa: 66.800 euro

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lehen seme-alabarengatiko dirulaguntza	44	5
Bigarren seme-alabarengatiko dirulaguntza	95	4
Hirugarren edo ondorengo seme-alabarengatiko dirulaguntza	78	2
Erditze anitzengatiko, adopzio anitzengatiko, adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren ordezkaritza anizkoitzengatiko, tutoretza anitzengatiko edo nazioarteko adopzioengatiko dirulaguntza	1	0
Ezintasunaren edo mendetasun-egoeraren onarpena dela eta, seme edo alabaren jaiotza, adopzioa, adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren ordezkaritza, tutoretza edo mantentzeagatiko dirulaguntzaren zenbatekoa bikoiztea	341	76

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteriaren arloan programak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko abenduaren 18koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuarena, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuentzako dirulaguntzetarako deialdia egin eta dirulaguntzak arautzen dituena, 2025erako, gazteriaren arloko programak eta jarduerak garatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia: https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2406032e.pdf Dirulaguntza emateko ebazpena: https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/11/2504679e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua lurraldez gaindiko jarduera-programak gauzatzen laguntzea da, gazte-elkarteek sustatutakoak edo gazteen bizi-kalitatea hobetzea, aisialdiko hezkuntza sustatzeko ekimenak gauzatzea, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak gauzatzea eta euskal gazteen bizi-kalitatea sustatzeko eta hobetzeko jarduera zehatzak gauzatzea helburu dutenak. Jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako erakundeek egin behar dituzte, eta erakunde horien helburuek eta edukiek izaera berritzailea izan behar dute edo gizartean eragina izan behar dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldian, Gazteria Zuzendaritzak 99 dirulaguntza-eskaera erregistratu ditu. Horietatik 80k dirulaguntza jaso dute, 7k atzera egin dute aurkeztutako eskaeran eta 12k atzera bota dituzte hainbat arrazoirengatik (2025ean ez egitea, irabazi-asmorik gabeko erakundeak ez izatea, deialdian eskatzen zen gutxieneko autofinantzaketa ez lortzea edo deialdiaren aplikazio-eremutik kanpo dauden jarduerak izatea edo Gazteria Zuzendaritzaren jarduera-eremuekin bat ez etortzea). Betetze-maila egokitzat jotzen da, aurrekontu-programaren tamaina 75 baitzen eta 80 proiekturi eman baitzaie dirulaguntza. Halaber, esleitutako dirulaguntzen zenbateko osoa 794.462 eurokoa da, hau da, esleitutako zuzkidura ekonomikoaren % 99,31 (800.000 €). Diruz lagundutako jarduera horiek baliagarritzat eta beharrezkotzat jotzen dira gazte-asoziazionismoaren jarduera sustatzeko, oro har, eta diruz lagundutako arloetan sartzen diren jarduera eta programa guztiak, bereziki, lehen deskribatu ditugunak.

Ildo horretan, uste da jarduera horiek eragin handia dutela gizartean, gazteen sustapenean, garapen pertsonalean eta gizarteratzean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako dirulaguntzen kopurua	75	80

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteen mugikortasunerako edo elkartrukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko otsailaren 14koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuarena, 2025. urtean mugikortasunera edo gazte-trukera bideratutako jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdia egin eta dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/03/2501218e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua lurraldez gaindiko jarduera-programak gauzatzen laguntzea da, gazte-elkarteek edo gazteen bizi-kalitatea sustatzea eta hobetzea, aisialdiko hezkuntza sustatzeko ekimenak gauzatzea, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak gauzatzea eta euskal gazteen bizi-kalitatea sustatzeko eta hobetzeko jarduera zehatzak gauzatzea helburu dutenak. Jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako erakundeek egin behar dituzte, eta erakunde horien helburuek eta edukiek izaera berritzailea izan behar dute edo gizartean eragina izan behar dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldian, Gazteria Zuzendaritzak 16 dirulaguntza-eskaera erregistratu zituen. Horietatik 12k dirulaguntza jaso dute eta 4k atzera bota dituzte hainbat arrazoirengatik (deialdian eskatzen zen gutxieneko autofinantzaketa ez lortzea edo jarduerak Europar Batasuneko beste eskualde edo estatu batzuetako gazte-taldeekin batera ez egitea).

Esleitutako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 145.000 eurokoa izan zen, hau da, bideratutako diru-zuzkiduraren % 100 (145.000 €).

Argi dago jarduera guztiek betetzen dutela aginduaren xedea; sortu zeneko filosofia, hau da, tresna bat gehiago izatea, gazteen integrazioa sustatzeko lan egingo duena, kasu honetan, gazteen mugikortasunera edo elkartrukera bideratutako jardueren bidez, erakunde eskatzaileen ekimenetik bertatik; izan ere, erakunde horiek askatasun eta ekimen sortzaile osoa dute edozein jarduera edo programa planifikatzeko eta antolatzeko. Zalantzarik gabe, hainbat erakundetan elkartutako herritarren benetako ekimenetik sortzen diren jarduerak dira, onartzen baitute gazteen mugikortasuna funtsezkoa dela Europako kide izatearen

sentimendua sustatzeko, eta, gaitasunak, trebetasunak eta gaitasunak garatuz, haien gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko.

Horrela, diruz lagundutako jarduerak baliagarritzat eta beharrezkotzat jotzen dira gazteentzako programak eta zerbitzuak, oro har, eta gazteen mugikortasuna, bereziki, sustatzeko eta garatzeko, arestian deskribatu dugunez. Ildo horretan, uste da jarduera horiek eragin handia dutela gizartean, gazteen sustapenean, garapen pertsonalean eta gizarteratzean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako dirulaguntzen kopurua	14	12

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetza-proiektuak garatzeko dirulaguntza

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 18koa, Gazteria eta Emantzipazio zuzendariarena, garapen-lankidetzako erakundeei dei egiten diena 2025. urterako, «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkez ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405945e.pdf
Dirulaguntza emateko ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/04/2501817e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEei zuzendutako dirulaguntza da, garapen-bidean dauden herrialdeetako lankidetza-proiektuak aurkezteko. Programaren helburua euskal gazteak solidaritate- eta partaidetza-balioekiko sentsibilizatzea da. GGKEek 800 euro jasoko dituzte aurkeztutako proiektuetan parte hartzen duen lankide bakoitzeko, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan hautatutako gazte boluntarioaren egonaldi- eta mantenu-gastuak zati batean ordaintzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasun eta inpaktu soziala 22 lankidetza-proiektu aurkeztu ziren, eta 147 lagunek izapidetu zuten eskabidea; horietatik 51k parte hartu zuten azkenean. Hautatutako pertsonek udako hiru hilabeteetan lankidetza-proiektuetan parte hartu dute Amerika eta Afrikako 9 herrialdetan.
2025ean, 31 GGKEk parte hartu zuten programan.
Aurrekontua gauzatzeari dagokionez, partidaren kreditua 100.000 eurokoa zen, eta horietatik 51.000 euro exekutatu dira.
Programaren erabilgarritasun eta inpaktu sozialari dagokionez, uste da handia dela, gazteek bildutako informazioa ikusita. Parte-hartzaileei egindako galdera-sortetan, honako esaldi hauekin duten adostasun-mailari buruz galdetu zen. Esaldi horien balorazioa ikus daiteke:

EGL programari esker, garapenerako lankidetza-proiektuak ezagutu eta horietan parte hartzeko aukera izan dut	8,4
EGL programan parte hartzeak garapenerako lankidetzaren arloan esperientzia bat in situ bizitzeko balio izan dit	8,8
EGL programa lagungarria izan da garapenerako lankidetzaren arloko ekintzetan sentsibilizatuago edo sentsibilizatuago egoteko	9,6
EGL programak beste lurralde batzuetako pertsonekiko eta errealitateekiko begirada enpatikoagoa izan dezan lagundu du.	9,6

Ildo beretik, GGKEek ere positiboki baloratu dute programaren helburuen betetze-maila:

Zure ustez, zenbateraino bete dira programaren helburuak?	9,4

Horregatik guztiagatik, betetze-maila egokitzat jotzen da, programak hasieran planteatutako helburuak betetzen dituelako eta gizartean eragin handia duelako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
GGKE parte-hartzaileak	40	31

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako dirulaguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 12koa, Gazteria eta Emantzipazio zuzendariarena, 2025erako «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405811e.pdf
Dirulaguntza emateko ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/07/2503266a.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programaren helburua da 22 eta 30 urte bitarteko 100 gazte, gehienez, herrialde eta lankidetza-proiektu jakin batzuetara lekualda daitezen erraztea, urtero proiektuak aurkezteko modua arautzen duen ebazpenean xedatutakoaren arabera (EBAZPENA, 2023ko azaroaren 24koa, Gazteriako zuzendariarena, zeinaren bidez «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programaren deialdia egiten baita 2024. Urterako).
Programa honen helburua da Euskadiko gazteak hegoaldeko herrialdeetako lankidetza-ekintzetan sentsibilizatzea eta euskal gazterian herrien eta kulturen arteko elkartasun-kultura sustatzea. Horretarako, linea honek pertsonen helmugarainoko bidaia diruz laguntzen du, baita bidaia-asegurua eta bisa-gastuak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

147 gaztek eman zuten izena eta azkenean 51 izan ziren parte-hartzaileak. Garapenerako gobernuz kanpoko 31 erakundek hartu zuten parte, horietatik 11 Euskadikoak eta 20 helmugako herrialdeetakoak. Guztira 22 lankidetza-proiektu burutu ziren Amerika eta Afrikako 9 herrialdetan.
Aurten 51 gaztek parte hartu dute. Datu hori ontzat jotzen da programaren hartzaileak gero eta gutxiago direla kontuan hartzen bada.
2025ean, gazteei inkesta kuantitatibo bat egiten zitzaien hirugarren aldia izan zen. Inkesta horietatik lortu da parte hartu duten gazteek 8,28ko balorazioa eman diotela programari, oro har. Hau da, pertsonek oso ondo baloratzen dute programa.

Programaren erabilgarritasun eta inpaktu sozialari dagokionez, uste da handia dela, gazteek bildutako informazioa ikusita. Parte-hartzaileei egindako galdera-sortetan, honako esaldi hauekin duten adostasun-mailari buruz galdetu zen. Esaldi horien balorazioa ikus daiteke:

EGL programari esker, garapenerako lankidetza-proiektuak ezagutu eta horietan parte hartzeko aukera izan dut	8,4
EGL programan parte hartzeak garapenerako lankidetzaren arloan esperientzia bat in situ bizitzeko balio izan dit	8,8
EGL programa lagungarria izan da garapenerako lankidetzaren arloko ekintzetan sentsibilizatuago edo sentsibilizatuago egoteko	9,6
EGL programak beste lurralde batzuetako pertsonekiko eta errealitateekiko begirada enpatikoagoa izan dezan lagundu du.	9,6

Ildo beretik, GGKEek ere positiboki baloratu dute programaren helburuen betetze-maila:

Zure ustez, zenbateraino bete dira programaren helburuak?	9,4

Horregatik guztiagatik, programak hasieran planteatutako helburuak betetzen dituela eta gizartean eragin handia duela uste da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Gazte parte-hartzaileak	100	51

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteen emantzipaziorako Emantzipa programa

2.- Araua

191/2023 DEKRETUA, abenduaren 26koa, gazteen emantzipaziorako Emantzipa Programaren laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Arau erregulatzailea
https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/12/2305769e.pdf
Deialdia
https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/03/2501420e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Emantzipa Programa dirulaguntzen programa bat da, eta hilean zenbateko bat ordaintzen du, gazteen emantzipazio-prozesuak hasten edo finkatzen laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025ean, programak 4.589.400 euro esleitu zituen guztira, honela banatuta: 736.500 € Araban, 2.394.000 € Bizkaian eta 1.458.900 € Gipuzkoan.
Emantzipa programaren lehenengo deialdian 3.928 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 2.669 onartu ziren. Lurraldeka, Bizkaian izan ziren % 52a, Gipuzkoan % 32a eta Araban % 16a. Generoaren araberako banaketari dagokionez, eskatzaileen % 59 emakumeak dira eta % 41 gizonak.
Eskaera egin zutenen batez besteko adina 26,8 urtekoa izan da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako laguntza kopurua	10.000	2.669

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Dirulaguntzak toki-entitateei immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren jarraipenerako (TEC lerroa). Dirulaguntzak toki-entitateei immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko (LOC lerroa)

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 18koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, EAEko toki-entitateei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei laguntza ekonomikoak emateko oinarriak onartzekoa, immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu eta immigrazioaren eta kultur arteko bizikidetzaren alorrean jarduerak gara ditzaten, eta laguntza horien 2025. urterako deialdia egitekoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/07/2503010e.shtml
euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/10/2504555e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza honen xedea toki-entitateek beren ekimenez egindako esku-hartze soziala sustatzea da, immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean horrelako toki-entitateak laguntzeko.
Laguntzak bi diru-laguntza lerro ditu, ondorengo helburu ezberdinekin:

- TEK ildoak immigrazioko teknikarien kontratazioari eusteko finantzaketa emango da, baldin eta, teknikari horiek kontratatzeko, laguntza hauen aurreko deialdiren batean dirulaguntzaren bat jaso bada eta 2024. ekitaldian indarrean egon bada. Lerro horretara bideratutako partida 480.000,00 eurokoa da.
- LOC ildoak immigrazioaren eta kultur arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egitea, gauzatzea eta ebaluatzea finantzatzen du. Lerro horretara bideratutako partida 850.000,00 eurokoa da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Harrera eta integrazioaren aldeko lanean jaurlaritzaren eta udalen arteko koordinazio tresna sendotzea (TEC lerroa).
  2025ean, 15 immigrazio teknikarien kontratazioa finantzatu da 10 erakunde publikotan, 407.500,00 euroko zenbatekoaren bidez.
- Kulturartekotasunaren esparruan udal-lanerako laguntza tekniko eta finantzarioa emateko baliabideak ezartzea (LOC lerroa).
  2025ean, jasotako 45 eskarietatik, 42ri eman zaie dirulaguntza, 850.000 euroko zenbatekoaren bidez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Entitate-kopurua (TEC 2025)	11	10
Entitate-kopurua (LOC 2025)	35	42